

## Heavy metalaren gaineko jaialdia antolatu dabe Zeberion

12. orrialdea

## Ubideko Bira hilaren 29an

Maiatzaren 29an izango da aurtengo Ubideko Bira. Igaz moduan ibilbide bakarra izango da. Ibiltariak 08:30ean urtengo dira herriko plazatik. Plazatik Siskiñora joango dira partaideak, gero San Pedroko baserrietatik pasauko dira eta Oketaraino igon. Handik Muruako harrobietara, eta Lexaranda eta Atxurdinetik pasauta, Ubideko plazan amaituko dabe martxea. 10. orrialdea



## Aukeran Jantza Konpainiaren Maurizia ikuskizuna Igorren 27an

12. orrialdea

# begitu

TOKIKOM

arratia ubide zeberio

# 252

2016ko maiatzaren 17a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Lemoatxeko batailearen antzezpena egingo dabe

**M**aiatzaren 21ean, Euzkadiko Fronteak alkarteak Lemoan egingo dauan antzezpenean 80 persona inguruk hartuko dabe parte, eta horrez gain

beste hainbat ekintza be antolatu dira orduan gertatutakoa hobeto ulertzeko, besteak beste, berbaldi bat, pelikula baten proiektzioa edota museo bizi bat. 5. orrialdea



Lemoatxeko trintxerea.

Argazkia: Lemoatx 1937.

## Ongi etorri errefuxiatuak plataformea lanean Arratian



**A**rratia errefujiaduentzat "babes herria" izatea gura dau errefujiaduen aldeko plataformea. Gerratik igesean dabiza-

nakaz Europar Batasunaren jokaerea ikusita, Europako beste leku askotan legez, Arratian be jentea antolatu egin da. 8. eta 9. orrialdeak

### ARRATIA

## Basqueskolaren aurkezpena egingo da maiatzaren 23an Igorren

Arratiako Udalen Mankomunitadeko Bardintasun Zerbitzuak eta Basqueskolak antolatuta, maiatzaren 23an, Basqueskola Andra Zinegotzientzako Eskoleak aurkezpena egingo dau Igorren, Mankomunitadeko egoitzan, 17:00etan. Aurkezpenera Arratiako andra zinegotzi guztiak dagoz konbidauta. 5. orrialdea



### ARRATIA

## Zemendiaren 27an izango da Gure Esku Dagoren galdeketea Diman

Dimako Alkarregaz Gure Esku Dagok galdeketerako deia zemendiaren 27ra atzeratzea ebatzi dau, Espainiako hauteskundeak bagilean izango diralako. Arratiako herrietako Gure Esku Dago ekimenak, ostera, hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren bigarren hamabostaldirako eta bagilaren lehenengo egunetarako. Etorkizunean herri galdeketa egin ahal izateko lantaldeak indartu, egindakoaren barri emon eta hurrengo erronken barri emoteko helburua daukie ekitaldiok. 6. orrialdea



### DIMA

## Dantzari Txiki Eguna hilaren 29an

Gazte Barri Dantza Taldeak antolatuta, XVIII. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dabe Diman 29an. Bertan Dimako jantziariak batera, Lazkaokoak, Beasaingoak, Areatzakoak, Zeanurikoak eta Otxandiokoak egongo dira. 150 ume inguru batzea espero dabe antolatzaileak.

Ume guztiak batu ostean, 11:30ean hasiko da jantzia kalejira batez, 13:00etan izango da jantza emonaldia eta gero jantzarientzako bazkaria eta erromeria egongo da. 7. orrialdea



## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

## IGNACIO RUIZ DE LUZURIAGA (AREATZA, 1763-MADRIL, 1822)

Gaur dakargun personaje hau Areatzan jaio zan 1763ko Inazio Deunaren egunean eta San Bartolome parrokian bateatu eben. Aita, Jose Santiago Ruiz de Luzuriaga Arbulo, Areatzara lan egitera destinautako mediku arabarra izan zan, Zurbano herrikoa; eta ama, Ageda Arana Acharia, abizenagaitik jatorri arratiarra eukana. Ignacio maila altuko zientzialaria izan zan, Kimikan, Fisiologian eta Medikuntza arloetan batez be. Ignacioren aita Peñafloredako konde ospetsuaren lagun mina izateaz gain, kondeak sortutako "Azkoitiako Zalduntxoan" izeneko taldekidea be bazan. Lan handia egin eban Santiago aitak kondeak gidatuten eban zientzia eta kultur talde horretan, Frantziako idea ilustratuak zabalduten euskal probintzietako medikuntzan eta, horren barruan, higie-

ren esparru barrian hain zuzen be.

Aitaren agindupean, Ignaciok orduko denporako goi-mailako ikasketak egin ebazan. 1777an, hamabost urteaz, zabaldu barri egoan Bergarako Mintegian, prestigio handia izango eban ikastetxean sartu zan eta Humanidadeak, Matematika, Fisika eta Kimika ikasi ebazan. Grekoa eta latina be ikasi behar izan ebazan eta, horrezaz gainera, aitak behartuta, beste hizkuntza honek be bai: ingelesa, frantsesa eta italiara. Ostean, Luzuriaga gazteak Parisen ikasi eban eta bere lehen ikerlan zientifikoa argitara emon eban frantsesez. Madrileko Lorategi Botanikoko kidea be izentau eben, eta orduko Espainiako Ministroa zan Arandako kondearen eskutik lehen laguntza ekonomikoa jaso eban ikerlan zientifikoa egiteko: 1785etik 1787ra, Luzuriaga Britainia

Handira joan zan Medikuntza eta Kimika ikastera. Londresetik Edinburgora, Eskoziako uriburura pasau zan, eta bertako unibersidadean urte bi bete ebazan ikaskuntzan, Arteetan maisu eta Medikuntzan mediku tituluak atera arte. Eskoziako meategi eta industria kimiko batzuk bisitau ebazan, eta Edinburgoko Historia Natural eta Medikuntza Mintegietako taldekide izentau eben. Glasgow, Eskoziako uri industrial nagusira be joan zan bere espezialidadeko lanak egitera, eta handik Londresera bueltau zan barriro 1786ko urtean. Londresen zirujia ikasketak egitea lortu eban eta Britania Handiko uriburuko ospitaleetan be ibili zan praktikak egiten. Urteakarenean, Parisera heldu zan eta lanean jardun eban Montpellier urian be, bertako Unibersidadeko Medikuntza Fakultadean hain zuzen

be. Bilbora etorri zan aita zaharra bisitetan; gero, Madrilerla alde egin eban, eta mediku lanak egiten jarraitu eban Espainiako uriburuan hil arte 1822an.

Luzuriaga doktoreak itxi deuskun lana arlo bitan bereizten da: batetik, Kimika eta Fisiologia esparruetan egindako aurrerapenak, eta bestetik, orduko gizartearen arazo sanitarioetan (epidemiak, esate baterako) higiearen politikea apliketea. Hona hemen kasu batzuk: 1801ean, Luzuriagak lehen bakunak ipini ebazan Madrilin; hurrengo urteetan, karteletako higieaz arduratu

zan; eta botiketan egozan medikamentuen erabilera normalizetan ahalegindu zan. Interesau zan, baita be, gormutuentsako asistentziaz eta egin eban erregistro estadistiko bat jakiteko erresumako inkusien kopurua. 1821ean, Luzuriagak azken ekarpen garrantzitsua burutu eban hil aurretik: Espainiako egitura sanitario modernoari hasikerea emoten parte hartuz; hau da, Gorteetara edo Parlamentura eroan zan Osasun Publikoaren Lege Organikoaren Proiektua idazteko Komisinoko kolaboratzailea izan zan.

Angel Larrea Beobide



Bergarako Mintegia.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara  
Maiatzaren 16tik 22ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 23tik 29ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 30etik bagilaren Sera

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

## Parketxea

94 673 92 79

## Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

## Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

## Trenak

Euskotren 902 543 210

## Bizkaibus\* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduru: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduru: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

## Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

## Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10.

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

## Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Webgunea: [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Raket Aldekoa Diez.

Maketazino: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarra (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Barruti



Gure inguruko lur-arloak harrateakaz inguratuta agertuten dira leku askotan, hau da, hariakaz egindako homakaz. Harien barruko espazio hori da barrutia (barrutíe, agoskatuta). Behiak, zaldia, behorrak eta ardiak egoten dira barrutietan bedarra jaten. Lehenagoko pastoreak, tratua egin ostean, ugazabari pagau behar izaten eutseen barrutian eukien ganadu-buru bakotxeko. Barruti berbea baserri mundutik harago, administrazioan eta eleiza-esparruan erabiltzen da lurralde bateko eskualde edo herri-banaketea egiteko.

## ERETXIA

### Mailan egon

Asko gara gizon eta andren arteko bardintasunaren aldeko burrukea, sinpatiaz begiratu, eta, batez be gure diskursoagaz, baina baita gure jarkereagaz babestu egin dogun gizonak.

Gure kide andrazkoakaz, eskola, unibersidade eta lan eremuak konpartidu izan doguz, eta benenetan sinistu egin dogu gizon eta andren arteko bardintasuna ukatuezineko printzipioa eta exijidu beharreko eskubidea dala.

Eta ha-ta guzti be, ez gara mailan egon.

Gizonezkoen eremu tradiziozkoetan sartu diran andrazkoai begirunez begiratu, animoak emon, eta esker ona erakutsi deutsegu. Horretarako daukien eskubidearen gainean egin dogu berba eta bardintasuna eskatzea bidezkoa izateaz gainera, gure gizartearentzat beharrezkoa dala esan dogu.

Baina hau guztia ikusleak baino ez bagina legez egin dogu, guri ezer aldatzea tokauko ez litxakigun moduan. Burruka honetan gure ekarpen bakarra, kasurik txarrenean onartzea eta onenean sustatzea izango balitz lez... Gure parte-hartze barik, ahaleginak egin barik, gure jarkerea aldatu beharko ez litzateken moduan. Labur esanda, guk daukaguna andrazkoak lortu behar ebela pentsetan genduan.

Baina gizon eta andren arteko burrukea ez da bakarrik andrazkoai galarazotako eremuak konkistetako aldarrikapena, gizarte eredu hau –patriarkala– modu erradikalean kolokan ipintea be bada. Eredu patriarkalak gizon eta andrazkoai, gure sexuaren arabera, rol eta zeregin jakin batzuk egotzi egiten deuskuz, gizonezkoai eremu produktiboa emonaz (aitortu eta pagautakoa) eta andrazkoai erreproduktiboa (pagau bakoa eta subsidiario moduan aurkezten dana).

Ederto. Andrazkoak egin dabe pausua. Eta hori egitean argi geratu da ustez subsidiarioa zan lan ha guztia, ustez bigarren mailako



### JOSU BASOZABAL

Gizonentzako Guneko partaidea

etxeko kudeaketea, zaintza lanak... gizarte eregiteko patriarkaduak sinistuarazo deuskuena baino askoz konstruktiboagoa dala. Eta derrigorrez egin beharrezkoa.

Eta deskubridu dogu, andrazkoak mobidutea ez dala nahikoa. Gizonok be mobidu egin behar garala. Tradizioz andrazkoena zan eremu horretan sartu behar garala gure gizartean zereginen banaketea justua eta parekidea izan daiten. Gure lagun andrazkoak ez dagien bizi (edo behintzat, ez eurak bakarrik) lanaldi bikotx eta hirukotxen tensino eroanezina, honek dakarren bizi kalidadea txarragoa eta gizonen eremuetara sartzeako mugakaz.

Bardintasunaren bidea ez da andrazkoak ibili behar daben bidea gizonezkook helmugan zain gagozan bitartean. Alderantziz, andrak eta gizonak bide erdian gagoz.

Guk, Arratiako gizonok, sinpatiaz begiratzeari itxi deusagu, erantzukizun eta konpromisoz jokatuete pausua emoteko.

Eta hau egitean deskubridu dogu asko daukagula irabazteko, patriarkaduak ezarri deuskun rola lar mugatzailea egiten jakulako. Izateko beste modu bat aldarrikatu gura dogu, beste maskulinidade bat.

Gure ama, emazte, alaba, arreba eta lagunai zor deutsegu. Geure buruari be bai. Eta baita, aldarrikatzeaz gainera, eregi gura dogun gizarte barri, justu eta parekideari be.

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torre Auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Endabak Batz gurekin

MONDRAGON 2022

## LUMATUTEN



## IGOR ESTANKONA

Black, lesbian,  
mother, warrior

**E**ta poeta. Nor da, bada, gauza bat bakarrik, kolorea eta sexua, klasea eta edadea, auzoa eta zigorrez jotako arbasoak: "Eta hemen eserita hausnarrean nabil/ nire buruetako zeinek biziraungo duen/ askapen hauen guztien ondorenean".

Audre Lorderen (New York, 1934-Saint Croix, AEBak, 1992) antologia, Susak argitara emona bere Munduko Poesia Kaietan, gomendatzeko modukoa da horratio. Irakurri eta eroango zaitu lehenaldira zein etorkizunera. Gaur eguneko gaingaita dauka honezkero. Espiritu guztiak daukaz liburu baten: aktibista da, leuna da, gogorra be bai. Behar bada afro amerikarren historiari hala erakutsita, mesfidatia dauka letrea, baina bitala eta askea, ostera, musikea. Harlemera eroango zaitu, esklabo ontzira igoko zaitu, eleiza ezagutuko

dozu, sukaldea, iraultza. Andrak egon diran leku guztiak aurkituko dozuz orrialde apur batzuetan.

Audre Lordek idazten dau bere tripetako minaz, baina andra bal-tzen mina da, egundo lehenengo-kontatua. Badauka blues bat sakonekoa eta imitetako gatxa, aho zapore gazi gozo bat itxen deusana, gura barik, irakurleari amaieran. Eta ez da tristurea. Ez da alaitasuna. Bizitza da: "aspaldiko gogortasunaren arrastoek dir-dir dagite izarrek nola/ hiltzen erakusten didate eta temati esaten/ heriotza ez dela gaitz bat".

Sufrimentuaren apologia egin barik, bide barrietan arakatzuz, berbak eurak eguneratuz eta diskursoai buelta emonez lortu dau sartzea antologietan. Kanona ez da, baina ertzeko jentearen kanona bai: "Andre boterea/ da/ beltz boterea/ da/ giza boterea/ da beti sentitzea/ nire bihotza taupaka/ nire begiak irekita/ nire eskuak ekinean/ nire ahoa hizketan".

## BEGI TXINDORRA

**A**rratia Institutuko DBH 4. mailako frantseseko ikasleak eskolatrake batean parte hartu dogu. Britainiako (Frantzia) gaztelaniako ikasle batzukaz, Guingamp herrikoakaz izan da trukea. Lehenengo eurak etorri ziran, aste bat pasetan. Hemen lekuak ezetu ebezan eta gaztelaraz berba egiten praktikau. Gero, gu joan ginan Frantziara, beste aste bat pasetan. Bertan ekintza asko egin genduzan. Sano leku polita iruditu jaku, esperientzia ikaragarria izan da. Aukerea suertetan bajatzue, ez itxi pasetan.

**Arratia Institutuko DBH 4. mailako ikasleak**

## ZERTZEAN

## Gaia jarrita: "Zeanuri"

## ZEANURIKO BERTSO ESKOLEA

1

Zortzi umen aite zaren  
Zeanuri Zeanuri  
sentsainak haurtoari lez  
kantatuko dautsut zuri  
kantatuko dautsut zuri  
Zeanuri Zeanuri  
ta bardin maiteko zaitut  
eguzki, edur nahi auri.

2

Asterrie Asterrie (bis)  
solo eta baserrie  
Urrekoatxa azpiko  
aузune zoragarrie  
Asterrie Asterrie  
aузune zoragarrie.

3

Ibargueneko txokoa (bis)  
horkoxekoa kokoa  
umoretsu ta patxadaz  
bixiteko modukoa  
Ibargueneko txokoa  
bixiteko modukoa.

4

Urkiari menpe Uribe (bis)  
Otzemenigez senide  
ta beste auzo guztiak  
lagun hurkoak ei dire  
Urkiari menpe Uribe  
lagun hurkoak ei dire.

5

Otzemendi goiko punten (bis)  
hodei artean burruken  
Uribetik nahiko hurbil  
ta Asterritik lekuten  
Otzemendi goiko punten  
ta Asterritik lekuten.

6

Lekandan pare Altzuste (bis)  
motzena danik ez uste  
baegozan ta badagoz  
hainbet pertsona ilustre  
Lekandan pare Altzuste  
hainbet pertsona ilustre.

7

Undurruga Undurruga (bis)  
hutsik ez dauen otzara  
paraje eder honetan  
San Pedro dogu uzaba  
Undurruga, Undurruga  
San Pedro dogu uzaba.

8

Gorbeiepean Altzua (bis)  
jagole San Juan ahaltzua  
antzua ez dan lurralde  
eguzkibegi gartsua  
Gorbeiepean Altzua  
eguzkibegi gartsua.

9

Azkenik Ipiñaburu (bis)  
zer esan behar dautsugu?  
Bizi zaituen auzoak  
sorgindu egin gaitu gu  
azkenik Ipiñaburu  
sorgindu egin gaitu gu.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**agoa** Ortodontzia  
hagin klinika  
Implanteak  
Estetika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentiloa 101  
R.P.S. 21/06

**OPEL**  
**ibalgane, s. Coop. Ltda.**  
Estazioa, 15  
48330 LENDAKA (Bizkaia)  
Tel: 631 33 30 + 631 31 31  
Fax: 631 36 15

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Balmenak: A1, A, B1, B  
Lehendakari Agirre 31  
Ibaeta, 48 613 71 32  
48140 IGOME (Bizkaia)  
garantxe@vankalnet.net

LEMOA

# Lemoatxeko batailea antzeztuko dabe San Antolinen hilaren 21ean

Maiatzaren 21ean, Euzkadiko Fronteak alkarteak, 1937ko maiatzaren 29a eta bagilaren 5aren bitartean Lemoatxen izandako batailearen antzezpena egingo dau bertan. Batez be, bagilaren 2 eta 3an gertatutakoa. Orduan asturiar brigada batek eraso egin eban arrakasta barik. Hurrengo egunean VI. Euskal Brigadak, azken garaipen euskal-errepublikarra lortu eban. Bagilaren 5ean, armada frankistak konkistau eban barriro Lemoatx. Horixe antzeztuko dabe Euzkadiko Fronteak alkartekoak batailea gertatutako lekuan.

Erredakzioa

Modu ludiko honetan lemoatza-rrak eta bertaratuten diran guz-ziak eukiko dabe bataila honen barri. Baina ez da ekintza bakarra izango. Izan be, astegoiaren osoan egongo dira egun hareek uler-tuteko ekitaldiak. Barikuan, hilak 20, 19:30ean Mikel Diego Aran-

zadiko historialariak "Lemoatxeko guda" izeneko berbaldia egingo dau, han gertatu zana eta hurrengo egunean ikusi ahal izango dana azalduteko. Batailearen antzezpena hurrengo egunean izango da arrastiz. Goizean, gerra zibilean girotutako museo bizia egongo da Arlonagusia plazan. Han, sasoi haretako ibilgailuakaz,



Lemoako batailearen errekreazinoko kartela.

kainoiakaz eta ekipamentuagaz jantzita eta armatuta egongo dira hainbat lagun gerra kanpamentuan. Museo bizi hau ikusteko bisita gidatu bi izango dira; lehe-

nengoa 11:00etan eta bigarrena 12:30ean.

**Batailearen antzezpena**  
Lemoatxeko burruka-gunera igote-

ko autobus zerbitzua egongo da, 15:30ean hasita. Dana dala, oinez igon gura izan ezker, eleizan 16:00etan da batzeako hitzordua. Antzezpena 17:00etan izango da eta ondoren lore eskeintza egongo da. Gero, herrian, Jubiladuen etxeko goiko aretoan, *Baile en el sindicato* (Fran Longoria 2016) pelikulea proiektatuko dabe. Pelikulea 1936-37ko neguan girotuta dago. Pelikulearen argudioaren abiapuntua da miliziarrek Meroñora heldu eta Alizia miliziar anarkistek erlazino bat hasten dauala Rosarito izeneko herriko neska bategaz. Hurrengo egunean, Berangon Burdin Hesia ikusteko aukerea egongo da. 10:30ean, Berangoko Kultur Etxean batu eta Aitor Miñambres museoko zuzendariaren eskutik, memoria museoa eta gotorlekuak ikusiko dabez partaideak.

**Euzkadiko Fronteak alkartea**  
Talde moduan, Euzkadiko Fronteak 2013an sortu zan errekreazinok egiteko, eta 2016ko urtaila ezkerotik alkartea da. Partaide gehienak memoria historikoa errekerperetako beste talde batzuetako kide dira; barbarako, Lemoatx 1937, Aranzadi Zientzia Elkartea, Intxorta 1937 Kultur Elkartea eta Burdin Hesia Ugao. Lemoako errekreazinok egiteko, estatu osotik etorriko dira 80 bat lagun: Asturiasetik, Aragoitik, Kataluniatik eta Andaluziatik, besteak beste.

ARRATIA

# Homofobiaren kontrako kanpaina Arratian

Erredakzioa

Maiatzaren 17a Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da. Hori dala eta, Arratiako Udalen Mankomunidadeak kanpaina antolatu dau fobia honeei aurre egiteko. Halan, urtero lez, adierazpen instituzionala onartu dau apirilaren 27ko Gobernu Batzordean.

"Adierazpenagaz, Arratiako Udalen Mankomunidadeak berretsi gura dau orientazio sexuala eta genero identitatean oinarritutako diskriminazioaren kontrako burrukan daukan konpromisoa" dinoe Mankomunidadeak. Ildo beretik, maiatzean, AUMko Prebentzino Zerbitzuak antolatuta, sexualidadeari eta aniztasunari buruzko tailerrak egongo dira Igorreko Institutuko 4. DBH eta Lemoako 3. DBHko ikasleentzat. Tailerren helburua da diskriminazioa edota *bullying* homofobia, lesbofobia eta transfoboari aurre egitea eta identitate eta sexu aukeren aniztasuna ahalbidertzea Arratiako gazteen artean. Horrezaz gainera, eskolen bitartez gurasoentzako banatzen dan aldizkarian, gaia landuko da.



ARRATIA

# Virginia Woolf Basqueskolaren aurkezpena egingo da Arratian



Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuak eta Basqueskolak antolatuta, maiatzaren 23an, Basqueskola Andra Zinegotzientzako Eskoleak

aurkezpena egingo dau Arratian, Mankomunidadean, 17:00etan. Aurkezpena, konbidautu dagoz Arratiako andra zinegotzi guztiak, politika arloan dagozan desbardintasun egoerak aztertu eta aurre egiteko tresnak partekatzeke.

Virginia Woolf Basqueskola Euzkadiko andrazko alkate eta zinegotzientzako espazio propioa da, sarean lan egitea eta tokiko politikai buruzko esperientziak trukatzeko ahalbidetzen dauana. Ekimena 2012an sortu zan Eudel eta Emakunderen arteko alkarlanaren ondorioz, hautagaiak eurak udal jardun politikoan azaldutako beharri erantzuteko. Bide honetako lehenengo urteotan *coaching*, lidertza eta komunikazio mintegiak antolatu dira, baita tailerrak, solasaldiak eta esperientzia trukeak. Miren Urresti AUMko Bardintasun Teknikariaren arabera, "Andrantsako Jabekuntza Eskolak eta Basqueskolak fisiofobia bera daukie, andren jabekuntza sustatzea alor guztietan eragile aktibo izan daitezten. Beraz, bat dator urte hasieran martxan ipinitako Arratiako Andrentzako Jabekuntza Eskola sortzeako prozesuagaz".

## ARRATIA

**Arratiako Gurutze Gorriak errefujiadu guneak ipiniko ditu eskoletan benetako materialagaz****Erredakzioa**

Arratiako Gurutze Gorriak (AGG) errefujiaduak eta errefujiaduen kanpalekuak zer diran erakutsiko deutse umeai. Informazio teorikoa eta praktikoa izango da. Lehenengotik, alde teorikoa landuko dabe ikusentzunezko laguntzeagaz, eta gero, hurrengo egunean, errefujiaduen harrera gunea ipiniko dabe, benetako materialagaz. Proiektua Lehen Hezkuntzan

egiteko da. Arteako eskolan, maiatzaren 17an; Igorrekoan hilaren 18 eta 19an eta Lemoako eskolan 23 eta 24an egingo dabe. Proiektuaren helburua umeak "telebistan ikusten dabezan irudiak eta errefujiaduak zer diran jakitea da. Arratian be herritarrak hasi dira mobiduten eta martxa bat egingo da. Pil-pilean dagoan gaia da. Gure helburua umeai informazioa emotea da, zer gertatu dan azaltzea" dino Idoia Zuloaga

**Gurutze Gorriakoak Areatzako eskolako aterpean.**

AGGko teknikariak.

**Kanpainako ospitalea eskolan**

Alde teorikoa, zer dan errefujiadu izatea, nondik datozen eta zergaitik azalduko dabe. Zer dan errefu-

jiadu eta zer migratzailea ikasiko dabe umeak, zeintzuk diran antzekotasunak eta zeintzuk desbardinatasunak. Ondoren bideo bi ikusiko dabez. Bata Siritatik alde egiten dauan ume baten historia kontetan dauana eta bestea, umea

bera, errefujiadu gune batera heldu arte bizi behar izan dauan bide gogorra erakusten dauana.

Hurrengo egunean, Gurutze Gorrikoak kanpamentuetan egiten daben beharra erakutsiko deutsee umeai. Eta horretarako, errefujiaduen harrerako Gurutze Gorriak izaten dituan guneen berdina, benetako materialagaz, ipiniko dau eskolan: karpa bi, harrera gunea eta osasun zerbitzua, eta gero ospitale barruan, lo egiteko lekua.

Umeak harrera protokoloa egingo deutsee errefujiaduena egiten dabenai: lehenengo sorospenak, datuak hartu, materiala banandu (mantak, sukaldatzeko tresnak, higienekoak...) eta kanpalekuan leku bat emon familia bakotxari.

Gero laguntza psikologikoa, juridikoa eta abar emoten dau Gurutze Gorriak kanpalekuetan.

## AREATZA

**Folka eta tradizioen inguruko berbaldiak****Erredakzioa**

Hiru berbaldi antolatu ditu Areatzako Udaleko Kultura Batzordeak. Lehenengoa "Gureak ote... betikoak omen" titulupean Patxi Labordak emongo dau maiatzaren 23an, 19:30ean udaletxeko aretoan, "jantzen egiten doguna apur bat hobeto ulertzeko, 'Gure jantzak' benetan gureak dira? Noz hasten da 'beti' betiko jantzak aitatzen dogunean. Betiko moduan jantzen egiten dogu? Tradizioaren kontzeptuagaz jolasean, jantzen gure istorio txikira hurreratzeko baje xume bat izango da" dino Labordak.

Barikuan, hilak 27, Agus Barandiaranen txandea izango da, Korrontzi taldeko kidea da Barandiaran, "Zeri esaten jako trikitixa?" izeneko berbaldia emongo dau 18:00etan udaletxeko aretoan.

Gaizka Salazar, Gatibu taldeko bateriarena izango da atzenengo berbaldia bagilaren 3ko goizean Areatzako eskoletan.

**Buruhandiak egiteko tailerrak**

Maiatzaren 20an buruhandiak egiteko tailerra emongo dau Sugoi Elkarteak ludotekan arrastiko 17:30ean. Maiatzaren 13an egin zan beste tailer bat.



## ARRATIA

**Arratia Institutuko ikasleak konzentrazioa egin eben bandalismoa eta erasoak salatuteko****Institutan egin zan konzentrazioa irudia.****Erredakzioa**

Institutuko ikasleak deituta, maiatzaren 12an konzentrazioa egin eben Arratia Institutuko hainbat ikasle eta irakaslek, aurreko asteetan gertatutako erasook salatu eta erasook sufridu dabezan ikasle, irakasle eta zuzendaritzakoai solidaritatea adierazoteko.

Gertaerarik larrienak apirilaren 25etik 29rako astean gertatu ziran. Izan be, gazte batzuek material lehergarriagaz betetako botila bat bota eben Institutuko ate baten kontra. Ez eban kalterik sortu baina Ertzaintza ikertzen dago gertakaria. Institutuko ikasle bik be erasoak sufridu ebezan

egunotan. Eraso horreetako bat kalean gertatu zan baina Institutuko ikasle batek jasan eban eta aurreko gertakariak lotuta egon eitekela uste dabe Institutuko iturriak. Beste erasoak, eraso sexista izan daiteke, neska batek irainak eta golpeak sufridu ebezan eta.

Egun batzuk lehenago izan ziran bandalismi motzat hartu daitezkezan gertakariak. Holan, pintadak agertu ziran, patioko lorak apurtuta eta sakabanatuta, eta irakasle biren kotxeak be kalteak izan ditue.

Egoera honeri konponbidea emoteko Arratia Institutuko zuzendaritza beharrean dabil Igorreko Udala, Mankomunitatea eta Ertzaintzagaz.

## ARRATIA

**Zemendiaren 27an izango da herri galdeketea Diman****Erredakzioa**

Alkarregaz Gure Esku Dago alkarreak herri galdeketerako deia bagilaren 19tik zemendiaren 27ra atzeratzea ebatzi dau, Espainiako hauteskundeak bagilaren 26an izango diralako. Itauna "Euskal estatu burujabe bateko herritarra izan gura dozu?" izango da. Dimoztarrren % 25ak herri galdeketearen alde sinatu dabe.

Bagilerako, 36 herrian egozan aurreikusita herri galdeketeak. Horretako 34k bagilaren 5ean egitea ebatzi dabe, baina Dimak eta Bakaikuk zemendira atzeratzea ebatzi dabe.

Alkarregaz alkartean, bagilaren 5eko datari lotutako baldintzak aztertu eta eztabaidatu ostean, hauteskunde sasoiaren horretarako giro aproposa ez zala adostu eben. Izan be, aurre kanpaina sasoiaren izango litzateke eta egunerokotasuna Espainiako hauteskundeak begira egongo da, eta arreta be bai neurri handi baten.

Data barriagaz, prozesua argia eta informazioa eskuratzeko aukera argia, neutrala, anitza, bardintasunean eta eraginkorra izatea bilatzen da.

Dimako Alkarregaz Gure Esku Dago, maiatzaren 22ko Igitieko Azokan egongo da. Hilaren 26rako, "Zer ikasi Kataluniako prozesutik" berbaldia antolatu dabe eta bagilaren 5erako Ispasterrera urtekerea.

**Gure Esku Dago berrindartzen**

Arratiako herrietako Gure Esku Dago hainbat ekitaldi antolatu ditu maiatzaren bigarren hamabostaldirako eta bagilaren lehenengo

egunetarako. Etorkezunean herri galdeketea egin ahal izateko lantaldeak indartu, egindakoaren barri emon eta hurrengo erroken barri emoteko helburua daukie ekitaldiok.

Holan, Areatzan, Gure Esku Dago 2016-2018 egitasmoaren aurkezpena egingo dabe udalgetxeko aretoan, maiatzaren 20an arrastiko seiretan. Han, lantaldea aurkeztu, egindako ibilbidea azaldu eta erroken azaltzeaz gainera, Dimako Alkarregaz Gure Esku Dagoak egondo dira herri galdeketearen azalpena egiteko.

Igorren batzarra aurreko egunean egingo da, hilaren 19an. Batzarren helburua lantaldea eratzea da. Kultur Etxean izango da batzarra 20:00etan. Bertan egindakoaren errepaso eta aurrera begirako erroken be tratuak dira eta ondoren, kopautxo egongo da.

Zeanurin maiatzaren 28an izango da adierazpen ekitaldia. Plazan izango da arrastiko 18:00etan eta bertan adierazpenaz gainera kantaldia, jantzaldia eta bisita sorpresa be egongo da. Ostean trikipotea egongo dabe.



DIMA

## Dantzari Txiki Eguna



bazkaria eta erromeria egongo da. Gazte Barri Dantza Taldea 2008an sortu zan, jantzarako zaletasuna eukien guraso batzuen eskutik. Taldearen helburua ume eta gazteen artean zaletasuna biztea da. Gainera, Dantzari Txiki Egunean jantzarai urtean zehar ikasitakoa jentaurrean erakusteko aukerea emoten jakie, euren arteko hartu-emonak bultzatzen dira eta herrian jantza giroa sortzean da. Baina batez be, ondo pasetea lortzean dala dinoe antolatzailak. "Aurreko urteetan lortu dogula uste dogu eta urtero hobetuz goazela esan geinke".

Erredakzioa

Dimako Gazte Barri Dantza Taldeak antolatuta, XVIII. Dantzari Txiki Eguna ospatuko dabe Diman maiatzaren 29an. Bertan Dimako jantzarikaz batera, Lazkaokoak, Beasaingoak, Areatzakoak, Zeanurikoak eta Otxandiokoak egongo dira. Antolatzailen ustetan, 150 ume inguru batuko dira jantzan egiteko. Ume guztiak batu ondoren, 11:30ean hasiko da jantza kalejira bategaz, 13:00etan izango da jantza emonaldia eta ondoren jantzarientzako

Euskal jantzak osasuntsu Diman

Gazte Barri Dantza Taldekoen arabera, euskal jantzak osasuntsu dagoz Diman. Izan be, inoz baino ume gehiago dagoz taldean, 40 inguru, 5 eta 15 urte bitartekoak. Ikasturte hasieran tailer bat emoten jakie umeai eskolan eta asko animetan dira taldean sartzean. Dana dala, erronka bi daukiez. Alde batetik mutilak jantzara erakartea; berrogei jantzaritik sei baino ez dira mutilak, eta bestetik, gazteak jantzan jarraitutea lortzea. Izan be, edade batera helduta, 14 urte inguru ditueanean, askok itxi egiten dabe taldea.

ARRATIA

## Labayru hiztegiak mobikorretan erabilteko aplikazioa



Erredakzioa

Labayruk hiztegia.labayru.eus webgune osoko edukia; hau da, euskera-erdera hiztegia eta hiztegi fraseologikoa, sakeleko telefonoan, doban eta sarera konektatu barik

erabili ahal izateko aplikazioa sortu dau. Aplikazioa Irontec enpreseak garatu dau eta telefonoaren Play Storetik jeitsi daiteke, Android zein Apple sistemara egokituta. Labayru hiztegiaren aplikazioak zabalkunde handia izan dau aplikazioa aurkeztu eta berehala. Izan be, hurrengo bost egunean 500 deskargara heldu zan.

ARRATIA

## Zaztaparrak Asti taldeak bere udaleku eskeintzea aurkeztu dau



Umeak igazko udalekuetan Igorren.

Erredakzioa

Aurtengo udarako, momentuz, Arantzazu, Igorre eta Lemoako proiektuak daukiez esku artean Zaztaparrak Asti Taldekoak. Herrian zein herritik kanpoko egonaldiak proposatuten ditue. Arantzazun, garagarriaren 4tik 15era izango dira Zaztaparrak Asti Taldeak antolatutako herri udalekuak. Egutero 10:00etatik 13:30era izango dira eta astean

behin egun osoko urtekerea egingo dabe. 2006tik 2012ra bitartean jaiotako umeak hartu daikie parte. Nagusitxagoentzat, 2002 eta 2005 bitartean jaiotakoentzat, Elantxoben eskeintzen dabe egonaldia garagarriaren 11tik 15era. Igorren, Zaztaparrak herri udalekuak, bagilaren 27tik garagarriaren 29ra izango dira. Igorren be, Arantzazun legez goizetan izango dira herri udalekuak eta hemen be, astean behin egun

osoko urtekerea egingo dabe. 2004 eta 2012 bitarteko umeak hartu daikie parte. Arrastietan, 18:00etatik 20:00etara, parkean jolasean ekimena antolatu dabe. Gaztetxoentzako udalekuak be antolatu ditu Zaztaparrak Asti Taldeak. DBH 1 eta 2. mailakoak herri udalekuak izango dabez garagarriaren 11tik 16ra eta gau bi kanpoan pasauko ditue. DBH 3. eta 4. mailakoak Asturiasera joango dira garagarriaren 20tik 24ra eta 4. mailatik aurrerako ikasleak Austriara.

Lemoan, herri udalekuak, ludoteka ibiltaria eta gazte udalekuak eskeintzen ditue. Herri udalekuak bagilaren 27tik garagarriaren 15era izango dira, 10:00etatik 14:00etara, 2004 eta 2012 bitartean jaiotakoentzat. Garagarriaren 18tik 29ra, eguraldi ona egiten badau igerilekura eroango dabe ludotekoa. Gazte udalekuak jagokienean, barriz, bagilaren 28-29 San Antolinen izango dira eta garagarriaren 4tik 8ra Ondarroan.

IGORRE

## Eraso sexista bako jaiak izateko lanean

Erredakzioa

Noka talde feministea, Igorreko Jai Batzordea eta Igorreko Udala lanean hasi dira jaietan eraso sexistarik ez egoteko. Hori dala eta, Beldur Barik Gunea ekimenaren barruan, jaietan sexismoa identifiketako tailerra eta kalejira antisexista antolatu dabez. Tailerra maiatzaren 25ean izango da arrastiko 18:30ean, Igorreko

Kultur Etxean. Honen helburua da, "identifiketea ze lekutan eta ze momentutan egoten diran jarkera sexistak eta horreei bueltea emoteko era personal zein kolektiboan zer egin daiteken landu. Beti be Beldur Barik jarkeran" azaldu deutso BEGURI Pili Alvarez Nokakoak. Helburu beragaz beste tailer bat be egongo da 13 eta 18 urte artekoentzat, baina ondino datak ipini barik dagoz. Bagilaren 7an, jaiak hasiko diran astean, kalejira antisexista egingo dabe Igorren Kultur Etxetik abiatuta, tailerrean agertutako une eta gunez jabetzeko. Txosnagunean protokoloa be egongo da eraso matxista eta xenofoboai aurre egiteko. Beldur Barik Gunea, matxismoa



kolokan ipini eta jaiak eraso barik bizi gura daben neska-mutilentzako espazioa da.

<p><b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa</p> <p><b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima</p> <p><b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio</p> <p><b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri</p>	<p><b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea</p> <p><b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre</p> <p><b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza</p> <p><b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre</p>
---	--

2 urtortiu 18ra

## ERREFUJIADUAK

# Arratia errefujiaduentzat "babes herria" izatea gura dau errefujiaduen aldeko Arratiako plataformeak

Gerra eta miseriatik alde egiten dabizanakaz Europar Batasunaren jokaera ikusita, Europako beste leku askotan legez, Arratian be jentea antolatu egin da gobernuai mugak zabaltzeko eta etorkin, errefujiadu eta gerra egoera sufriduten daben munduko biztanle guztien eskubideak bermatzeko salbuespen barik exijiduteko. Hori dala eta, Arratiako Ongi etorri errefuxiatuak herritarren plataformeak, Arratia mailan zein herrietan, hainbat ekimen antolatu ditu, errefujiaduentzako Arratia babes herria izan daiten.



Zeanurin ipinitako postua.

## Erredakzioa

Herritarrak inpliketako helburuagaz, plataformakoak martxea antolatu dabe hilaren 28rako. Hiru adar izango diru martxeak; Zeanuri, Lemoa eta Dimatik abiatuta, Igorren amaituko da. Zeanuritik 10:00etan urtengo dira, Lemoatik eta Dimatik, barriz, 12:00etan Igorrera 13:00etan ailegetako. Zaratatsua eta teatralizaua izango da martxea eta partaideak, errefujiaduen moduan, ume eta maletakaz egingo dabe bidea. Igorrera heldutakoan, danak batuta, aldarrikapenak modu teatralizauan

egingo dabez oihera eta koruaren erantzunakaz. Maiatzaren 28ko martxara deitzeako, plataformakoak bideo bat grabetan dagoz, gero sare sozialetan ipiniko dana.

Baina injustizia honegaz amaituteko, jentea sensibilizateaz gainera neurri zehatzak be hartu behar dirala eretxita, udalerri bakoitzean dagozan baliabideen inbentarioa be eskatuko deutsee arratiarrak udal ordezkariak, baita erantzun eraginkorra emoteko konpromisoa be. Horixe da udalantzurantz aurkeztuko daben mozinoan eskatzen dan gauzetako bat. Izan be, errefujiaduak ondo hartzeako

ezinbestekoa da jakitea zeintzuk diran Arratiak dituan baliabideak.

## Europak hartutako jarkerea legez kanpokoa

Pobreziatik eta gerratik igesean doazen personeren aurrean Europar Batasunak emondako erantzuna, bidebakoa eta insolidarioa izateaz gainera, legez kanpokoa be bada la ekarri dau gogora Arratiako Ongi etorri errefuxiatuak herritar plataformeak udaletan aurkeztu dauan mozinoak. Hor azaldutakoaren arabera, hiru konpromisotan egin dau huts Europak: alkartasunaren konpromisoan, erantzukizunaren konpromisoan eta legezketasuna-

ren konpromisoan.

Alkartasunaren konpromisoak esan gura dau, gerratik igesean larrialdi, preminazkotasun eta sufrimentuzko muturreko egoeran dagozanai laguntza emotea, berehala eta ezelango atzerapenik barik. Eta atek zarratu ditu Europak laguntasunik ez emoteko.

Erantzukizunaren konpromisoa be ez dau bete EBk, Europakoa izateak persona guztien giza eskubideak eta duintasuna babesteko erantzukizuna gure gain hartzea dakar eta. Atzenik, legezketasunaren konpromisoa be urratu dau Europar Batasunak. Izan be, Europak derrigorrez bete behar ditu Nazinoarteko Zuzenbidea, 1951. urteko Genevako Konbentzinoa, Giza Eskubideen Adierazpenaren 14. artikulua, eta Batasuneko Oinarriko Eskubideen Gutunaren 18. artikulua.

Arratian aurkeztuko daben mozinoak, Europar Batasunak eta Turkiak egindako akordioa arbuatzen ditu eta personak eta giza eskubideak lehenesten dauan asilo eta migrazino politika

barri bat eskatzen dau. Mozinoan onartuten daben udalak, EAeko erakundeakaz lankidetzan, persona errefujiadu, migratzaile eta asilo eskatzaileak harrera egiteko konpromisoa hartuko dabe, eta horretarako "udal gisa, eskurgarri daukaguzan baliabideen inbentarioa egiteko konpromisoa hartzean dogu (epe laburrera), besteak beste, etxebizitza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta bestelakoak, azaldutako krisialdi humanitarioari erantzun eraginkorra emoteko". Gainera, gertaera xenofoboak arbuatzea, sensibilizazio ekintzetan parte hartutea eta harrera herrien sareagaz bat eginda Arratia Babes Herria izentatzea eskatzen dabe.

## Herriz herriko ekimenak

Arratia mailan edo herri guztietan egingo diran ekimenaz gainera, herri bakoitzean beste ekitaldi batzuk antolatu ditue. Holan, Areatzan, Karpoko jaietan, maiatzaren 7 eta 8an, informazioa emon eta materiala saldu eben. "Errefuxiatuen txokoa" ipini eben za-

ongi etorri errefuxiatuak !

**MARTXA ZARATATSUA**



maiatzak 28 zapatua

Arratia, babes herria





"Errefuxiatuen txokoa" Areatzan.

patuan, eta mahaitxo domekako ganadu azokan. Igorren, hilaren 20an, 18:00etatik aurrera Rugbyko tabernaren ondoan jaima bat ipini eta batzarra egingo dabe

bertan 19:00etan. Hilaren 28an martxearen osteko ekitaldia be Igorren izango da.

Lemoan be, hainbat ekitaldi egin dabez. Maiatzaren 10ean, es-

kolako ikasleak, azokea, pintxoak, bildutako materialen salmentea, Harrotugaz photocall-a eta jolasak antolatu ebezan errefujiaduentzako dirua lortzeako. Guztira 1.287

### ongi etorri errefuxiatuak **MARTXA**zaratatsua

Arratia. Maiatzak 28 zapatua



euro jaso ebezan eta dirua Save the Children Gobernu Kanpoko Erakundearentzat da. Kopuru horren barruan, aurreko astegoienean, eleizaren inguruko jenteak eskularen salmentegaz jasotako diru bat be baegoan. Berbaldia be antolatu eben Karabie Gaztetxean. Izan be, maiatzaren 13an, Komite Internazionalistetako Mertxe Gomezek "Inperialismoa, errefujiaduak sortzeako makinea" izeneko berbaldia emon eban.

Zeanurin, Ongi etorri errefuxiatuak plataformakoak, San Isidro

Eguna aprobetxau eben jentea sensibilizetako, postu bi ipini ebezan eta postuetako baten informazioa emon eta materiala saldu eben.

Ipinitako beste postuan jenteak etxean egindako pintxoak saldu ebezan. "Helburua jentea mobilizetean zan" dinoe Zeanurikoak. Holan lortutako dirua Intxaurrendoko Gastronomi Elkartearen Zaporeak solidario proiekturako da. Alkarte honek Greziako Chios-en behar eginen daben GKEakaz eginen dau behar.

## Arratiako Musika Eskola



IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean


- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak

10:00etatik - 13:00 arte

Tlfnoa: 94 631 73 52

- \*Matrikulazioa posta elektronikoz:  
[arratia.musikaeskola@gmail.com](mailto:arratia.musikaeskola@gmail.com)

## MENDIA

Ubideko Birak 21 km.  
izango ditu aurten

## Erredakzioa

Maiatzaren 29an izango da Ubideko Bira 2016. Igazko moduan ez dira ibilbide bi aukeran izan-

go, bakarria izango da. Eta luzea. Igazko ibilbideak 13,5 km. izan ebazan baina aurtengoak 21 km. ditu. Ibiltariak 08:30ean urtengo dira Ubideko plazatik.

Oketako tontorra (1.031 m.) izango da punturik altuena. Plazatik, Siskiñora joango dira partaideak, gero San Pedro baserrietatik pasauko dira eta Oketaraino igongo dira. Handik Muruako harrobietara joko dabe eta Lexaranda eta Atxurdinetik pasau ostean, Ubideko plazan amaituko dabe martxea.

Izena emoteko modu bi dagoz. Maiatzaren 29an bertan, 07:30etik aurrera, 7 euroko prezioan. Aldez aurretik be emon daiteke izena <http://ubidekobira.es.tl> webgunean eta ordainketea aurretik egiten bada, 5 euro pagau eta martxa egunean ordainagiria eroan behar da.

Ubideko produktuen otzarea-  
ren zozketea

Bira amaitutakoan, indarrak berreskuratzeko kopautxoak izango dabe ibiltariak. Ubideko produktuen otzarea be zozketatuko da partaideen artean.

## ERRUGBIA

Amaitu dabe  
denporaldia  
Zekorrak

## Erredakzioa

Atzenengo partidu bietan Arratiko Zekorrak taldeak ez dau irabaz-

terik lortu. Orain dala asteburu bi Iruñera joan ziran jokaturera eta bertan 31-5 galdu eben La Unicaren kontra. Maiatzaren 7an osteria Igorren jokatu eben denporaldiko atzen partidua Uribealderen kontra. 25-28 amaitu zan partidua. Holan 10. postuan bukatu dau txapelketea.

Umeen entrenamentuak jarraituten dabela gogora arazo gura dabe Arratiko Zekorrak taldekoak.



## XAKEA

Xakezaleak Areatzako  
liburutegian batzean dira

## Erredakzioa

Igazko Areatzako jaietan, 20 xake-taulatan, 40 lagun ibili ziran jokoan. Hori ikusita, xake alkarte bat sortzea ebatzi eben billaroztar batzuek eta 2015eko zemendian, Xake Bizi Areatza Kirol Kluba sortu zan. Harezkeroztik, herrian xakearen presentzia handitu egin da. Egun, Areatzako taberna guztietan dagoz xake-taulak eta eskolan xake ikastaroak egin daitezke. Eta alkarteak eta jokatu gura daben guztiak liburutegian batzean dira xakean jokaturako.

Abiapuntua igazko jaiak izan zirala dino Damian Agirremota Xake Bizi Areatza alkarteak. Ondoren, Guraso Alkarteagaz hartu-emonetan ipini ziran eta alkarte honek umeentzako ikastaroak antolatu ebazan eskola-kirola programearen barruan, Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzeagaz. Horetan bi umek egin eben oinarriko ikastaroa eta 20k orain amaitu bari dan bigarren ikastaro bat.

Alkartean hamaika persona heldu

dagoz. Jokaturako geratzen diranean umeak be abisetan dabez. "Batzuetan etorten dira eta beste batzuetan ez. Gu hemen (liburutegian) geratuten gara barikuetan xake-jokoan egiteko, hiru astetik behin" dino Agirremotak.

## Jaietan xakean

Xakearen inguruko ekintza desbardiak antolatu ditue alkarteak ikasturtean zehar. Gabonetan, barbarako, *Buscando a Bobby Fisher* pelikulea emon, eta ondoren, aldibereko partidea antolatu eben: 20 lagun Jon Asel Goiriaren kontra. Euskal Jaian, partidea erraldoia antolatu eben, taula eta fitxa handi-handiak; eta herriko jaietan Xake Txapelketea.

Aurrera begira, jaietan xakearen presentzia bermatzeko Jai Batzordeagaz hartu-emonetan dagoz Xake Bizi Areatza alkarteak. Ikastaroak antolatuten eta euren artean jokaturten be jarraituko dabe. Parte hartu edo informazio gehiago jaso gura dabenak [xakebiziareatza@gmail.com](mailto:xakebiziareatza@gmail.com) helbidera idatzi daikie.

## MILIA HERRIKOIA

Milia bat galapan Lemoan,  
andren osasunaren alde

## Erredakzioa

Maiatzaren 28an, andren osasunaren aldeko eguna dala eta

Igorreko eta Lemoako Parekidesan Arloak, ekintzak antolatu dabez Gu be bai runners egitasmoagaz batera, andrak alkarregaz

galapan egiteko taldeakaz. Izan be, aurten, osasuna eta kirola hartu dau gaitzat egunak.

Maiatzaren 22an, domekea, 12:00etan, Milia Herrikoa antolatu da Lemoan, Gazte txepetik hasita. Edozeinek hartu leike parte, eta bertan kamisetak banatuko dira Emakumeak Martxan! esaldiagaz. Helburua, andrak kirola egitea da, oro har, eta batez be, espazio publikoan. Milia batek 1.609 m. ditu. Iraia Garcia Bizkaiko kros txapelduna eta Igorre eta Lemoako Gu be bai runners taldeetako irakasleak be parte hartuko dau. Ikasleak galapan egiteak "ilusino handia" egiten deusala azaldu deutso BEGURI.

Bestalde, maiatzaren 26an, eguna, arrastiko 18:00etan, Kultur Etxean Ainhoa Azurmendiren berbaldea egongo da Igorren. Azurmendi kirol aholkularia eta bardintasunean aditua da. Berbaldiaren izenburua, "Emakumeen osasun integrala eta kirola: berdintasuna lortzeko erronkak" da.

## TXIRRINDULARITZEA

V. ZeberioXTrem mendi bizikleta  
martxan izena emon daiteke

## Erredakzioa

Bagilaren 5ean izango dan V. ZeberioXTrem mendi bizikleta martxan parte hartzeako izena emon daiteke bagilaren 3ra arte. Ibilbide bi dagoz aukerean, luzeak 43 km. ditu eta laburrak 31 km. Ur-

tekerea goizeko 09:00etan izango da Zeberio Ermitabarritik.

Izena, bagilaren 3ra arte, rockthesport.com webgunean edo Garribikes dendan emon daiteke 13 eurotan. Baita egunean bertan be, probearen aurretik 18 euro ordainduta.



## TXIRRINDULARITZEA

# Zubero bigarren Titan Desert basamortuko lasterketan

Julen Zubero Lemoakoak bigarren egin dau Titan Desert, goi mendi eta basamortuko lasterketa gogorrean. Podiumean, Powerade taldeko arratiarragaz batera, Kataluniako Josep Betalu irabazlea eta Portugalgo Jose Silva egon ziran. Marokon egiten dan karrera honen 11. edizioa izan da aurtengoa eta 400 txirrindularik hartu dabe parte.

### Erredakzioa

Ziklistak 662 km. egin ditue sei etapatan, Ifranen hasi eta Maadiden amaituta. Lehenengo etapa biak Atlas mendikatean jokatu ziran eta hurrengo laurak basamortuan. Julen Zuberok 25:07:21ko denporea egin eban.

### Titan Desert 2016

Lasterketea apirilaren 24an hasi zan, goi mendiko etapakaz. Julen Zuberoren estrategia, etapa honeetan indarrak gordetzea izan zan, gero basamortuan dana emoteko. Hasikerako etapetan lasterketa buruko taldean sartu eta mantenidu egin zan. Laugarren etapetan, barriz, etaparik luzeenean (145 km.), eroso sentidu eta arri-

katzea ebatzi eban Lemoakoak. Holan, sailkapen orokorreko hirugarren postua lortu eban. Hurrengo egunean, GPSagaz orientau behar ziran partaideak. Zuberok ondo ikasita eukazan mapak eta



Julen Zubero.

ibilbidea bikain egin eban. Bere atzetik, Josep Betalu eta Jose Silva joan ziran, baina Silva nagusitu jakon sprintean. Ha-ta guzti be, arratiarra sailkapen orokorrean, bigarren jarri zan, eta atzenengo etapetan mantenidu egin eban bigarren postu hori.

### Julen Zubero

Julen Zubero Aldekoa, AZEko Opel Ibaiganen hasi eta 2005 eta 2007 artean Orbea taldeagaz kaminoko txirrindularitzan ibili bazan be, ziklo-krosean lortu dau arrakastarik handiena atzen urteotan.

Titan Desert lasterketako txirrindularirik onenetarikoa da eta proba gogor honetako etapak be irabazi ditu. Holan, batzuk aitatzearen, 2013an, etapa bat irabazi eban eta 4. egin eban orokorrean; 2014an, etapa bi irabazi eta seigarren egin eban; eta aurten txapeldunorde izan da Mendi Bizikletako munduko probarik gogorrenetakoa.

## MENDIA

# Gorbeia Suzien Ternuan izena emoteko epea bagilaren 1ean zabalduko da

### Erredakzioa

Gorbeia Suzien Ternua urri bigarrenaren 1ean, zapatua, izango da aurten, eta aurreko urteetan lez izena emoteko epea bagilaren 1ean zabalduko da. Izena [www.gorbeiasuzien.com](http://www.gorbeiasuzien.com) helbidean emon daiteke. Igaz lasterketa nagusiko dorsalak 27ordutan agortu ziran eta "adi ibilteko" dinoe antolakuntzakoak BEGITURA bialdutako prensa oharrean.

Gorbeia Suzien Ternua 2016, ISF National Championship proba izango da aurten, eta nazi-noarteko eliteko korrikalariak izango dira bertan. "Atzen asteetan baiezkatuko dabe euren partaide-tzea izarrak. Baina Gorbeia Suzien Ternua ez dira izarrak bakarrik; egun horretan GST jaiaz gozatzen daben 800 partehartzaiak, 200 boluntarioak eta beste gauza ugari be bada GST" dinoe.

Aurten be ibilbide bi izango dira; lasterketa nagusia, 2015ean estreinau zan berbera izango da, 31 kilometroko ibilbidea. Bertan parte hartzeako 18 urte izan behar dira derrigorrez. Lasterketa Herrikoiak,

ostera, aldaketa txiki bat izango dau lehenengo zatian; izan be, Arrabako landara arte lasterketa nagusiaren ibilbide berbera izango dau. Holan, ibilbidea 22 kilometrokoa izango da. Lasterketa Herrikoia, galapan egin beharrean oinez be egin daiteke. Parte hartzeako 15 urte izan behar dira gitxienez.

Izena emoten dabenak dorsala eta lasterketan parte hartzeako aukerea izango dabe honek dituan zerbitzu guztiak: anoaguneak, mediku zerbitzua, eta abar. Opari boltsea be jasoko dabe. Oparien artean, Aldamin izeneko Ternua jakearen modelo barria, bertako produktuak eta bazkari herrikoirako txartela egongo dira.

### Ibilbide mitologikoa Gorbeian

Maitzaren 29rako Gorbeiatik ibilbide mitologikoa egiteko ume zein helduentzako urtekerea antolatu dau Suzien Mendi Klubak Angel Larrearen gidaritzapean. Urteke-rea 08:30ean izango da Saldropotik edo 09:30ean londogortako parkinetik. Izena suzienmendikluba@gmail.com edo 653 745 838 telefonon emon behar da.

## FUTBOLA

# Arratia B txapeldun

### Erredakzioa

Arratia B taldea mailaz igon da, maiatzaren 7an Orozkon Atxulaur taldearen kontra 2 eta 6 irabazi eta gero, Hirugarren Erregional mailako txapeldun dira. Arratia Bk datorren urtean Bigarren Erregional mailan jokatuko dau.

Arratiako gizonen A taldea os-

tera partidu baten faltan atzenaurreko postuan dago. Hilaren 7ko partidua, Loiuren kontra 2 eta 0 irabazi eban arren, 15ean Retuertoren kontra jokatuako partidua 2 eta 1 galdu eban. Atzen partidua Apurtuarteren kontra jokatu dau eta partidu hau irabazten badau be, beste taldeak ze egiten daben etxon beharko dau salbazinoa lortuko dauan jakiteko.

### Andrazkoak

Arratiak bigarren postuan amaitu dau ligea. Hilaren 14an jokatu eban ligako atzen partiduan 1 eta 2 irabazi eta gero. Hutsna bardindu eban ostera hilaren 8an Igorren Zarautzen kontra.

Ligea amaitu dan arren, Euskal Kopea jokatu dau Arratiak orain. Hurrengo partidua, maiatzaren 21ean arrastiko 15:30ean, Leioako Emakumeak taldearen kontra jokatu dau Igorreko Urbieta zelaian. Ez da aurkari erreza izango, Bigarren mailatik bajatu barri dan taldea da eta Leioakoa.



Korrikalari bat Gorbeiaiko kurutzera heltzean igazko edizioan.



## GONBIDAPENA

Sarearen prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte dohain)

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

**Ekainaren 3tik Sera**

**Eko esperientzia bizi ezazu!**

[bioterra.ficoba.org](http://bioterra.ficoba.org)

- 3 pabiloi tematiko
- Osasun eta ongizate jasagarria
- Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak
- Show Cooking
- Bioterraza, elikagai ekologikoekin
- Zozketak
- Haurrentzako aktibitateak!

gratibidean hasi arazi eta azokara sareari sartzea

**P** dohainik

**Ficoba, zafar trenean!**  
(Bun-Ficoba gaitokai)

**euskotren**

ANTOLATZALEA

**FICOB**  
BUL. GIPUZKOA  
[www.ficoba.org](http://www.ficoba.org)

## JANTZA IKUSKIZUNA

# Maurizia Aldeiturriagaren omenezko koreografia eskeiniko dau Aukeran Dantza Konpainiak Igorren



Maurizia jantza ikuskizuna.

## Erredakzioa

Aukeran Jantza Konpainiak, Bilboko Loraldia jaialdia aurkeztu eban Maurizia lana eta Igorreko Kultur Etxera ekarriko dau maiatzaren 27an, 20:00etan. Maurizia Aldeiturriaga Zeberioko pandero jotzaile mitikoari eskeinutako koreografia da.

Aukeran Dantza Konpainia Donostian sortu zan 1997an, Edu Muruamendiaren jantzari eta koreografoaren ekimenez. Harrezkerotik ibilbide luze eta aberatsa egin dau, jantza tradizionala eta garaikidearen mestizajea. Aprilean estrenau dabe Maurizia, konpainiaren atzen lana. Ikuskizunaren helburua, gure zuztarrak abiapuntu hartuta jantza garaikidea sortzea da.

Mauriziaren kantetako modua indartsua zan. "Halako batean barne lurrikarak eztanda egin eta Mauriziaren ahotsean entzun ditut beste hainbat ahots. Emakume askoren ahotsak dira, bizi-poza, harrotasuna, indarra,

pasioa, alaitasuna erakusten dutenak. Baita beldurra, amorrazioa, askatasun nahia, mina. Emakume haien guztien irrintziak aldi berean direlako algarra eta aienean, aldi berean salaketa eta ospakizuna" idatzi eban Karnele Jaio.

## Maurizia

Maurizia Aldeiturriaga Zabala, Zeberioko Egia auzoan jaio zan, eta txikitatik panderoa jotzen eta koplak inprobisetan ikasi eban. Bederatzi urtegan neskame joan zan Basurtura, ganadu tratante baten etxera. Han hiru urte inguru emon ondoren, Zeberiora bueltau eta Ugaoko fabrika baten hasi zan beharrean. Hamabi urte baino ez eukanean hasi zan Maurizia jaiegun eta festetan herriko plazetan jotzen. Plazarik plaza ibiliz ezagun egin zan, eta Arteako Leon Bilbao albokariagaz eta Igorreko Fasio Arandia trikitilariagaz batera hainbat grabaketatan parte hartu eban. 1988ko maiatzaren 19an hil zan, Zeberion, eta ia hil arte jo izan eban panderoa.

## MUSIKEA

# Metal jaialdia Zeberion

## Erredakzioa

Maiatzaren 27rako, barikua, eta bagilaren 4rako, zapatua, musika heavy metalaren jaialdia antolatu dabe Zeberion. Lehenengo egunean, iluntzeko zortziretan hasita, aurkezpen jaia, kontzertuak eta "jebi jaia" izango dira Batzokian. Hurrengo asteko zapatuan, barriz, eguerdian hasiko da jaia "jebipoteoagaz", bertso-bazkaria egongo da ondoren eta iluntzean kontzertuak Eskola Zaharrean.

Alex & Co. eta Lion Heart taldeak joko dabe maiatzaren 27an. Alex & Co taldea, Bilboaldetik dator (Bilbo, Santurtzi, Portugaleta eta Getxo) eta hard rock melodikoa egiten dau. Lion Heart taldeak,

rock klasikoa eta metala.

## Egunik "jebiena"

Baina Metal jaiaren egunik "jebiena" bagilaren 4a izango da. Izan be, egun horretan ordubietan hartuko dau musika heavyak Zeberio "jebipoteoagaz", eta gaueko ordu txikiak arte rockaz gozatuteko aukerea egongo da. Bertsobazkarian, Arriagorriaga eta Zeberioko bertsolariak bertsoak eta musika heavya buztartuko ditue eta iluntze eta gaubean hiru taldek eskeiniko dabe kontzertua eskola zaharrean.

Lehenengo taldea, Arrigorriagako Disaster Now izango da. Arrigorriako Thrash metala egiten dabe eta euren lehenengo diskoa kaleratu barri dabe. Ondoren, Ger-



nikako Etorkizun beltza taldearen txandea izango da, eta azkenik thrash eta death metal egiten dauan Ferosz taldeak joko dau.

Zeberioko Jebi Batzordeak, Zeberio Sarean eta Zeberio Udalak antolatu dabe Zeberio Metal jaialdia.

## LEHIAKETEAK

# Zu bai Zu Talentu Lehiaketako hirugarren saioa maiatzaren 21ean

## Erredakzioa

Zu bai Zu Arratiako Talentu Lehiaketako gala bi egin dira aprilean arrakasta handiz eta beste bi geratzen dira finalaren aurretik. Partaideen maila hain ona izan da, epaimahaikideak finalurrekoetarako hiru lehiakide aukeratu beharrean, lehenengo galan lau eta bigarrenean bost sailkatu dituela finalerdietarako. Publikoak be sano ondo hartu dau lehiaketea; izan be, bigarren saioko sarrerak 30 minututan agortu ziran. Maiatzaren 21ean, 20:00etan jokatu da hurrengo kanporaketea, bagilaren 4an finalurrekoa eta 12an finala.

Gala bakotxean bederatzihamar lagun edo talde lehiatu dira, eta printzipioz, bakotxatik hiru partaide sailkatu behar ziran finalurrerako. Baina epaimahaikideak sano maila altua egoala eretxia,

lau laguneri emon eutseen hurrengo faserako pasea lehenengo galan. Honeek dira sailkatutakoak: Magali, Igorreko umea telakaz akrobaziak egiten dituana; Aimar, Igorreko umea hau be, tronpegaz trebetasun handia erakutsi dauana; Izaro, Paule eta Nikole umeak lurreko akrobaziak, eta Illart Gumuzio, Aimar Fernandez "Zoro", Iraitz Sagarna eta Irati Bernaola helduak kantau egiten dabenak.

Bigarren galatik bost sailkatu ziran: Unax Zabala, Igorreko gaztea, kantuan; Arratiakada izeneko Arratiako batukadea; Esti eta Olatz Zeanuriko abeslariak eta Igorreko Jone bere clown ikuskizunagaz.

Zeanuriko Leire Trueba gaztea zuzenean sailkatu zan finalerako, epaimahaiko batek Inizitu botoia sakatu ebalako. "Jantzan egiten dau. Flipantea izan zan: areto guz-

tia zutunik. Eta epaimahaia aho zabalik gelditu zan berak etxean ikasitako jantza bat dala esan ebanean" azaldu deutso BEGITURI Ismael Pereira lehiaketako aurkezleak.

Bihotz Gorospek, Nuria Kortak, Olaia Larruzeak eta Olatz Gorrotxategik osotuten dabe epaimahaia.

## Freddie Mercury hirugarren galan

Partaideak eurak emoten dabezan sorpresaz gainera, beste sorpresa batzuk be egoten dira ikuskizunetan. Holan, hirugarren galan, aurkezleak Freddie Mercuryren imitazioa egingo dau. Nor imitatu, publikoak aukeratu eban Facebook-en bitartez botoa emonez. "Sorpresaz asko daukaguz finalurrerako eta finalerako" dino Ismael Pereirak.

Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
Fisioterapia  
Zentroa  
Igorre  
Ellexalde 4  
Telefona 94 631 55 08  
Andra Mari  
Klinika  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1, Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

begitu  
arria ulde ezkerre

ARA OTZ  
Lagunak & Jabetzen I  
Parruti Ugaztara 2 de. 48101 Ormaiztegui (Bizkaia) www.araoztz.com

Beer & Edariak s.l.  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 099 482 839 / fax: 099 290 717

FISIK  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

RUGBY  
TABERNA  
Egin zaitez bazkide!  
09:30etik zabalik  
Asteburretan pintxo bereziak  
arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako  
instalazioak s.l.  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Airezatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak  
Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia

## ANTZERKIA

### Igorreko Baga biga hilga taldearen *Aliziaren sindromea* antzezlanaren Zugan Ni jaialdiko ikuskizun ikusgarriena

#### Erredakzioa

Markeliñek antolatutako Zugan Ni antzerki jaialdia Zornotzan izan zan maiatzaren 8an. Bertan, Igorreko talde bik taularatu ebezan euren ikuskizunak. Irabazlea *Aliziaren sindromea* izan zan. Igorreko bes-

te taldearen lanak *Porka miseria* aitamena izan eban. Durangoko talde bik, Zornotzako bik, Igorreko beste bik eta Iurretako batek hartu eban parte Zugan Ni jaialdian.

Zugan Ni antzerkirako gunean, 13 eta 18 urte arteko gazteak hartzean dabe parte. Igorren talde

bi egon dira ikasturte honetan eta Ismael Pereira eta Olaia Larruzea irakasleen laguntzeagaz lanak sortu eta antzeztu ditue.

*Aliziaren sindromea* "maila handiko ikuskizuna da, oso landuta dago eta bikain lotzean ditu istorioa eta fantasia. Irudi eta soinu aproposak eta interpretazio aparta. Benetan oso ederra" dalako eroan eban saria.

Eta *Porka miseria* epaimahaiaren aitamena izan eban, "zuzeneko musika polita, gorputz akrobaziak, erritmo bikaina eta orokorrean ondo antzeztuta. Lan biribila" izan zalako.

## MUSIKEA

### Umeentzako joko koralak antolatu ditu Musika Eskoleak



Kirikinusioko gazteak.

#### Erredakzioa

Arratiako Musika Eskoleak umeai kantu korala hurreratu gura deutse. Hori dala eta, joko koralak antolatu ebezan maiatzaren 14an. Holan, jolas musikalen bitartez, Arratiako umeak kanteteaz disfrutatu ahal izan eban.

Arratiako Musika Eskolearen barruan, Kirikini izeneko umeen korua dago. Beatriz Zurimendi irakaslearen zuzendaritzapean, barikuetan batzean dira, arrastiko seiretan Igorreko Inazio Zubizarreta Haurreskolan entseguak egiteko. "Koruan, inguruko herrietako umeak dagoz: Igorre, Lemoa, Areatza... Aurten, Iparraldeko umeen koruetako topaketetan parte hartu dogu eta datorren ikasturterako proiektu gehiago daukaguz martxan. Kantetea gustetan jakien ume gehiago hurreratzeari gura geunke" azaldu deutso BEGITURI Beatriz Zurimendi

irakasleak.

#### Tailerrak eta emonaldia

Ondino Kirikini koruan parte hartzean daben umeak, bertan parte hartzeako animetako helburuagaz, koru tailer bi antolatu ditu Arratiako Musika Eskoleak. Lehengo maiatzaren 14an izan zan, baina beste bat egongo da bagilaren 3an, arrastiko 18:00etatik 19:30era arte, Inazio Zubizarreta Haurreskolan. Urri lehenengoan be beste bat antolatuteko asmoa daukie Musika Eskolakoak.

Maiatzaren 20an, barriz, Kirikini koruak Arratia eta Zornotzako beste koru batzuk batera, kontzertua eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean arrastiko zazpiretan. Euskeraz, ingelesez eta Afrikako hizkuntzaren baten be, koreografiak edota pianoak lagunduta, kantauko dabe Kirikini koruko umeak.

## BERTSOLARITZEA

### Txapelketako Udagoieneko Faserako sailkatzen saiatuko da Igor Menika Getxon

#### Erredakzioa

Maiatzaren 22an, Arantzazuko Igor Menika, Aitor Ruiz, Inazio Vidal, Joseba Barandiaran, Julen Erezuma eta Malen Amenabarregaz neur-tuko da Getxoko Fadura kiroldegian, arrastiko 17:30ean. Udabari faseko atzen saioa izango da eta puntuazioaren arabera eukiko dau kanporaketetara pasetako aukerea.

Bizkaiko Txapelketak fase nagusi bi ditu aurten. Udabari Fasea eta Udagoieneko Fasea. Atzen hori kanporaketakaz hasiko da, finalurrekoak jokatuko dira gero, eta atzenik, finala.

Udabari fase honetan bertsolariak egin behar dabezan ariketak honeek dira: hiruna bertso ofiziotan zortziko nagusian; hiruna ber-

tso ofiziotan zortziko txikian; launa koplak ofiziotan lau ko handian eta bakarkako lana, gai baten gainean



Igor Menikak Getxon egingo dau bertsoetan.

bertso bi doinu eta neurri librean.

#### Sailkapena

Ondino saio guztiak ez diranez jokatuko sailkapena behin-behinekoa da, baina momentuz Imanol Uribe da buru 189 puntuagaz. Inazio Zubizarretak 172 puntu ditu eta hamaikagarrena da eta Illart Gumuziok 142,5 puntu eta hogeta hamazazpigarren postuan dago.

## DUNBA

### Igorreko eskolan Kultura Astea ospatu dogu

#### Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Aurtengo Kultura Astea ikaragarria izan da. "Kolare kolore" izan da leloa.

Astelehen goizean "Gintzen" entsegu orokorra izan genduan eta material birziklatuagaz egindako lanak Haur Hezkuntzara eroan genduzan.

Arrastian, pinak marraztu genduzan, eta eskolako sarreran, ustrukuak margotu genduan. Ustrukuak eskolearen aniztasuna adierazoten dau: danok gara kolore, guztiok dotore.

Martitzen goizean emonaldia eskeini geuntsen eskolako umeai;

arrastian, barriz, familiai, gurasoai eta lagunai. Zirrargarria izan zan,

oso urduri egon ginan baina ohol-tzara igotea beti da plazerra.

Eguaztenean, Onintza Enbeitaren bisitea izan genduan eta oso



gustura entzun genduan, bizipen ugari kontatu euskuzan eta. Arrastian, 5. eta 6. mailakoak kamisetak personalizatuak egiten ikasi genduan, Enkami eta Bihotzen laguntza eskertzekoa benetan.

Eguenean, itsasoa gai izanda, "Kulki" izan genduan eta arrastian zumba ikastaro laburra egin genduan Beagaz. Itzel pasau genduan!



## AGENDEA

MAIATZAK 17  
IGORRE

Maiatzaren 31ra arte, Irakurri, Gozatu, Oparitu egitasmoa.

## LEMOA

27ra arte, Euskal Jairako txartelak udaletxean salgai. Bagilaren 4an izango da Euskal Jaia.

Maiatzaren 31ra arte, Irakurri, Gozatu, Oparitu egitasmoa.

Maiatzaren 27ra arte garagarriaren 31n egingo dan XIX. Artisautza Azokan izena emoteko epea. 94 631 30 05 telefonon emon izena.

Bagilaren 17ra arte, Lemoako jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkezteko epea.

MAIATZAK 18  
LEMOA

19:30ean, luzaketa tailererrako izen emotea. Jubiladuen Etxeko goiko pisuan.

MAIATZAK 19  
AREATZA

Maiatzaren 22ko ibilaldirako izena emoteko atzen eguna. Parketxean edo 646 355 550 (Xabi) telefonora deituta.

## IGORRE

18:00etan, Gizonentzako Guneak antolatuta Maskulindadea eta sexu-genero sistema. Kultur Etxean.

20:00etan, batzarra Igorreko Gure Esku Dagoren ibilbidea eta erronkak. Ondoren kopautxoak. Kultur Etxean.

MAIATZAK 20  
AREATZA

18:00etan, Gure Esku Dago 2016-2018 egitasmoaren aurkezpena udaletxeko aretoan.

## IGORRE

18:00etatik aurrera, Ondo etorri errefuxiatuak Arratiara. Jaima Rugbyko tabernaren ondoan; 19:00etan batzarra bertan.

19:00etan, koru emonaldia. Kultur Etxean.

## LEMOA

19:30ean, berbaldia "Lemoatxeko guda" Mikel Diego Aranzadiko historialariaren

eskutik. Jubiladuen etxeko goiko aretoan.

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, luzaketa tailerra. Jubiladuen Etxeko goiko pisuan.

MAIATZAK 21  
AREATZA

20:00etan, Charlie Cosh-en kontzertua The Quiet Corner-en.

## BEDIA

10:30ean, Bediatik ibilbidea txorien etxekoak ikusten Fernando Ruizen gidaritzapean. Plazan.

Ganguren Mendi Taldeak antolatuta asteburu pasa Pirinioetan. Gavarnie. Pimene (2.801 m.).

## IGORRE

20:00etan Zu bai Zu Talentu Lehiaketako gala

Kultur Etxean.

## LEMOA

10:30ean, Euzkadiko Guda Zibilean girotutako museo biziari hasikerea. Arlonagusia plazan; 11:00etan, lehendabiziko bisita gidatua Museo Bizitik; 12:30ean, bigarren bisita gidatua; 15:30ean, Lemoatxeko burruka-gunera igoteko autobus zerbitzuaren hasikerea; 16:00etan, Lemoatxera oinez igoteko geldialdia eleizan; 17:00etan, Lemoatxan izandako burrukaren antzezpina. Amaieran lore eskeintzea egongo da; 20:30ean, *Baile en el sindicato* pelikulea Jubiladuen Etxeko goiko aretoan; 22:00etan, Lemoatxeko batailaren historia antzezpeneren jardunaldiaren amaiera.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekerea. Angosto. Peña Grajera (832 m.).



## Garagardo Eguna Areatzan

Beerlaro Fest izenagaz, Garagardo Eguna antolatu dau Areatzako Tabernari Elkartek, Gorbeialderen eta Areatzako Udalaren laguntzeagaz, maiatzaren 28rako. Eguerdiko 12:00etan, Garagardoaren Azokea hasiko da "Prost" eginaz. Bertan, Gorbeialde eremuko ekoizleak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak eta Euskal Herritik kanpokoak salduko dabe euren garagardoak. Txosnan, jatekoa eta bost motatako garagardo artisauro egongo dira; Laugar (Gordexola), Mala Gissona (Oiarzun), Samuel Adams, Weihenstephan, eta Baias (Gorbeialde) markakoak hain zuzen be. Musikeagaz lagunduta egongo da goiza eta Arratia Motor Taldekoak antolakuntzan laguntzeaz gainera kontzentrazioa egingo dabe.

Arrastian, kuadrilen arteko olinpiadak egongo dira 17:00etan, 18:30ean bigarren "Prost" bat egingo da txanpinoiak lagunduta. Amaitzeko, The Pushermen taldeak kontzertua emongo dau herriko plazan 19:00etan.

10:30etik 12:00etara, Masterclass zumba. Kiroldegian.

20:00etan, Udabarriko Kontzertuak Mundakako Abesbatza, Orfeon de Usansolo eta Lemoako Abesbatzen Elkarte. Eleizan.

MAIATZAK 22  
AREATZA

07:30ean, eleiz aurrean. Gorbeia Parke Naturalak Lamino Mendi Taldeagaz batera antolatuta, mendi urtekerea Gorbeia ekialdetik mendebaldera, Ubide-Orozko.

## DIMA

Igitie Azokea.

## IGORRE

17:00etan zinea *El niño y la bestia*; 19:30ean, *El regalo*. Lasarte Aretan.

## LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak urtekerea. Bidania. Urraki (25 m)-Illaun (826 m)-Irunbur (743 m.).

MAIATZAK 23  
AREATZA

19:30ean, Pabi Labordaren "Gureak ote... betikoak omen" berbaldia udaletxeko aretoan.

## IGORRE

17:00etan, Virginia Woolf Basqueskolaren aurkezpena Arratian. Mankomunitadean.

MAIATZAK 25  
IGORRE

18:30ean, jaietan sexismoa identifiketako tailerra. Kultur Etxean.

MAIATZAK 26  
AREATZA

19:30ean, zineforuma Jose Angel Rebolledogaz *El fuego y la palabra* (Richard Brooks, 1960).

## DIMA

19:00etan, berbaldia "Zer ikasi Kataluniako prozesutik?" Liburutegian.

## IGORRE

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra Kultur Etxean.

MAIATZAK 27  
AREATZA

18:00etan, Korrontzi taldeko Agus Barandiaranen "Zer da trikitixa?" berbaldia udaletxeko aretoan.

## BEDIA

18:00etan, aizkolari eta herri kirol erakusketean plazan.

## IGORRE

19:00etatik aurrera Open Torontile, Igorreko diseinu eta serigrafia tailer barria ezetuteko. Kiñu Gaztebaxean. Jatekoa, edatekoa eta tailerra.

20:00etan, Aukeran Dantza Konpainiaren *Maurizia* jantza ikuskizuna Lasarte Aretan.

## ZEBERIO

Zeberiometal. Aurkezpen jaia eta kontzertuak. 20:00etan, Alex & Co.; 21:00etan, Lion Heart; 22:30etik aurrera "jebi jaia", opariak, jolasak eta bideoak. Batzokian.

MAIATZAK 28  
AREATZA

11:30ean Peña Athletic Gorbeako Gurutzearen Batzar Orokorra. Udaletxean. 15:00etan bazkaria Hotel Bainuetxean. Bazkideak bazkarirako izena hilaren 22ra arte emon ahal dabe Motxo Tabernan.

20:00etan, Victor de Diego Trioren kontzertua The Quiet Corner-en.

## ARRATIA

10:00etan, Ongi etorri errefuxiatuak martxea Zeanuritik Igorrerara. 10:30ean Areatzan, 11:30ean Artean, 12:15ean Arantzazun, 13:00etan Igorren. Dima eta Lemoatik 12:00etan.

## IGORRE

22:00etan, zinea *Kiki, el amor se hace*. Lasarte Aretan.

## LEMOA

12:00etan, Udaleko Parekidetasun Zerbitzuak antolatuta, Milia Herrikoia Gaztebaxeko parkingean.

Larrabeitiko jaiak.

## ZEANURI

18:00etan, Gure Esku Dagoren ekitaldia: adierazpena, kantaldia eta jantzaldia. Plazan.

MAIATZAK 29  
DIMA

Dantzari Txiki Eguna. 11:30ean, kalejireia; 13:00etan, jantza emonaldia eta 16:00etan, erromeria.

## IGORRE

17:00etan, zinea *El libro de la Selva*; 19:30ean, zinea *Kiki, el amor se hace*. Lasarte Aretan.

## UBIDE

08:30ean, Ubideko Bira. Plazatik.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

## PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesauta egon ezkerro, 686 495 724 telefonora deitu.

## DANERIK

## BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

## BEHAR BILA

Delineazino lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

## BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak

bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

## PARKING PARTZELA ALOKAIRUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakoitxak. 659 395 911.

## OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

## GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolari autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Maurizia* ikuskizunerako.

Iñaki Egileor (Igorre)  
Itziar de Casi (Areatza)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Kiki, el amor se hace* filmarako.

Mari Tere Bilbao (Artea)  
Peru Perez de Anuzita (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13


urte eta

ehundaka

lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Partitu. 2.- Bat erromatar. Urten.  
3.- Litoia. Sanskritoko silaba sagradua.  
Mila erromatar. 4.- Jazoera, gertaera.  
Andrazkoen izena. 5.- Uritar. 6.- Modua.  
Uribildu. 7.- Kansonantea. Eguzkiaren  
jainkoa. Goragaleak etorri arte ase.  
8.- Madari. Bokala. 9.- Ahatearen  
antzeko hegazti.

### GOITIK BEHERA

1.- Bihurtu. 2.- Bokala. Zimel. Izan  
aditz jokoan. 3.- Sodioa. Erreskadon.  
4.- Inesiboan, behingoan, berehala.  
Bokala. Berba alkarketan, ardi.  
5.- Zitaldu. Ezetza. 6.- Edabe garbi.  
Ugari. Bokala. 7.- Amerikako.



Topau Euskadiko zazpi museoren izenak.

S	A	R	T	U	N	K	A	E	D
S	A	N	T	E	L	M	O	K	O
M	I	R	E	N	E	A	G	A	N
A	I	A	S	G	M	R	U	I	O
Z	U	N	G	E	I	S	G	N	Z
K	R	A	E	B	O	A	G	B	T
U	R	K	E	R	A	Z	E	E	E
R	A	B	E	R	I	O	N	R	B
A	Z	K	U	N	A	A	H	R	A
A	S	T	I	L	E	K	E	I	N
U	R	P	E	T	I	L	I	B	O
G	E	T	A	L	E	I	M	A	K
E	Z	K	I	B	A	K	O	D	U
R	O	A	Q	U	A	R	I	U	M
Z	O	T	E	A	M	I	B	O	A

# AKMIKO

Zorrozkilo



umeen moda  
**sem**  
0-10  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa: 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOK, NEUMATIKOK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 • Telefonoa: 94 673 60 14 • IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza • Tlfnoa 649 86 95 36

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2  
48140 Igorre (Bizkaia) • Tlfnoa: 94 673 64 25

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGA, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxe 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3, 3a • 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

\*KIRRU\* ILEAPANDEGIA  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 08

Pinturas Anatia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskolas bain ezinez  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: undaia@euskalnet.net

## THE JELOSKORS

## The Jeloskors taldeak udako lehenengo kontzertua eskeiniko dau bagilaren 17an, Igorren

Maketea grabau barri dabe Bilboko Haceria Aretoan Arratiako The Jeloskors taldekoak. Orain arte denpora bat geldirik egon arren uda heltzeako gogo handiagaz dagoz, hala nola, kontzertu barriak eskeintzeko eta eszenatokiaren bestaldean dagozan entzuleai euren lana ezetutera emoteko. Momentuz, kontzertu bat besterik ez dabe agendan baina ziur dagoz denporearen joanean gehiago eskeiniko deutseezela.

Rakel Aldekoa Diez

### Zer dala-eta pentsau zenuen taldea sortzea?

**Oier Barrenetxea:** Juerga baten kontzertu bat ikusten gengoan bitartean, hasi ginan berotuten, gustetan jakula musikea eta abar, eta gustauko jakula jotea holango jairen baten. Holan hasi zan dana. **Iñaki Lejarreta:** Hasikera baten nik gitarrea jotzen neban. Gero, Oier be hasi zan gitarrearen harragaz eta horregaitik, gitarra bat erosi eban 30 euro pagauta. Beraz gu biok hasi ginan Oier Katxoren garajejan eta gero Mikel Zarrabe be animau zan jotzen eta atzenean hasi ginan talde moduan ensaietan. Gero, Oier bajua jotzen hasi zan eta gaur arte. Gaur egun, Iñaki Lejarretak eta Mikel Zarrabek jotzen dabe gitarrea, Oier Barrenetxeak bajua jo eta abestu egiten dau eta Oier Katxok bateria jotzen dau. Gero Igorren dagozan lokaletan hasi ginan ensaiatzen. Hasikera baten, beste abeslari bategaz baina gero itxi behar izan eban eta Oier jarri zan abesten.

### Nondik dator taldearen izena?

**Mikel Zarrabe:** Izen barik hasi ginan ensaiatzen, baina denpo-

rea aurrera joan ahala zerrenda luze bat egin genduan eta hortik atera zan gaur egun daukagun izena. Oier Barrenetxeak bota eban.

**O.B.:** Hasikeran, brometan izan zan, baina gero gustetan hasi jakun.

**I.L.:** Aurrerago Celoso esan genduan baina ez euskun hainbeste konbenziduten. Izenak ingelesezko zeozer eroan behar ebala pentsetan gendualako. Beraz, atzenean The Jeloskors izena hartu genduan.

**Oier Katxo:** Izena aukeratzea sano gatxa da.

### Non gustauko litxakizue joatea?

**O.B.:** Niri asko erakarten nau Mondragonek. Arkada Social taldekoak bertakoak dira eta gehienbat guri gustetan jakun estiloa be bertakoa dalako.

**I.L.:** Niri lekua ez jata ardura, edozein lekutan joko neuke gustura. Bizkaian, Gipuzkoan...

**O.K.:** Lekua baino nire ustez garrantzitsuagoa da jentea begira eukitea, presente. Kontzertuetara joatea. Izan be, Bilbon jo genduan kontzertu bat baina ez jakun ia inor etorri. Giroa sortzea beharrezkoa dala iruditzen jata.

**M.Z.:** Atzen baten, guk gura do-



guna jotea da. Ez daukagu eze-lango pegarik deitzean deuskuen lekutik deitzean deuskuela. Hara joan eta joteko prest egongo gara beti.

### Zein motatako musikea egiten dozue?

**M.Z.:** Egiten dogun musikea punk-rock barruan dago baina gure kasuan, bateriak indar handiago dauka.

**O.K.:** Influentzia asko daukaguz; esate baterako, Arkada Social, Los de Marras, Kruders holango roiloa gustetan jaku batez be; baina gure bereizgarrietako bat da, hardcore estiloa emoten deutesgula abestiai bateriaren bidez. Estilo indartsua da gurea.

**I.L.:** Oier Katxori asko gustetan jako heavy metala. Baterian toke desbardin bat daukagu ohiko punk musikatik bereizten gaituana.

### Dagoeneko maketea aurkeztu dozue. Zelan joan da dana?

**O.B.:** Oso esperientzia aberasgarria izan zan. Asko disfrutau eta ikasi genduan, dana barria zan eta. Maketearen aurkezpena Igorren Herriko Tabernan izan zan eta bertan jaso genduan harrerea apartekoa izan zan.

**I.L.:** Urri lehenengoan amaitu genduan dana, Bilbon. Iñigo Olabarririk nahasketak egin ebazan

eta gero maketearen kopiak egin genduzan. Gainera, Iñigo Olabarririk egin dauan beharra aitatzekoa da. Lasaitasun handia transmitidu deusku momentu guztietan. Emoitzea asko hobetu da berari esker. Maketea amaitu eta egun berean diskoaren aurkezpena izan zan, zemendian. Nire ustez, orain arte egin dogun kontzerturik onena izan zan. Gainera, jente pilo hurreratu zan.

**O.B.:** Gainera, beti jakin izan dau zer gura dogun eta zelan. Guretzat oso garrantzitsua izan da.

**M.Z.:** Horrez gain, idea pilo eskeini deusku, hemen hau sartu ahal dozue, beste hau hemen...

### Zertan oinarritzen zarie letrak idazterako orduan?

**O.B.:** Letrak nik egiten dodaz. Batzuetan, kalean esaten ez dozuzan gauzak, adibidez, kanten bitartez esan ahal dodaz. Historiak buruan eukiten dodaz. Apuntetan dodaz parte batzuk eta amaieran, formea emoten ahaleginduten naz abestiai. Batzuetan, ez dau zeozer adierazoten, ez da mensaje zuzena, batzuetan historia bat kontatzeagaz nahikoa izaten da.

### Zenbat kontzertu espero dozue?

**M.Z.:** Azkenaldian, apur bat geldituta egon gara ikasketai, lanari

eta abarrerik denpora gehiago eskeini deusagulako. Udan espero dogu kontzertu batzuk izatea. Adibidez udako lehenengo kontzertua Igorrenko jaietan izango da, bagilaren 17an, hain zuzen be, Habeas Corpus taldeagaz batera.

**O.B.:** Gogo handia daukagu denporatxo bat daroagulako jo barik eta uda hau heltzeako gogoz egon gara kontzertuak joteko eta batez be disfrutetako.

**I.L.:** Facebookean ere gure orrialdea daukagu, maketa osoa be Youtubean entzungai dago, beraz, animetan zaituet entzun daizuen. Gure telefonoa be bertan dago eta nonok deitu gura badau...

### Zer transmitiduten deusue The Jeloskorsen joteak?

**M.Z.:** Guretzat garrantzitsuena ondo pasetea da. Hau guztia hobbie bat dalako.

**I.L.:** Eskape modura be erabili geinke errutinatik urteteko, deskonektetako. Atzenean, errutina, ikasketa, eta abarretatik deskonektetako. Apur bat ensaiatu, tragu batzuk hartu lagunakaz, buruak be eskertzen dau.

**O.B.:** Pentsetan doguna adierazotea, kontakizunak konteteta, sentimentuak, eta abar. *La ostia* da rock izar baten moduan sentitzea ordu bete iguruan.

Orue eskola

GIZARTERATZEA  
Goi Mailako Zikloa

IZEN  
EMATE EPEA  
ZABALIK!

2016/2017 IKASTURTEA

Psikomotrizitateko  
graduondoa

Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ordu

ORUE ESKOLA - San Miguel de Duda, s/n  
48340 AMOREBIETA-ETXANO

Tel. 946 300 058



www.orueeskola.org

